

...eta kitto!

741 zkia. 2010-XI-19

ASTEKARIA

TOKIKOM



Olentzero & Co! musikalaren estreinaldia Eibarren

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



Laserrak txantxarra goiz antzematea ahalbidetzen digu, mingarriagoak eta garestiagoak diren tratamenduak saihestuta

Txantxarra, periodontitis edo piorrearekin batera, hortzak galtzea eragiten duten ahoko-gaixotasun ohikoek dira. Orain dela oso gutxira arte, txantxarra antzemateko modu bakarra ikus-behaketara, esplorazio zundatzea eta erradiografiak eginda zen. Baina, **ohiko bitartekoak erabilita, ahoan hasberriak diren txantxarren %60 baino ez dugula antzematen.**

Eta zer gertatzen da orduan? Txantxarrak aurrera egiten jarraitzen duela, gero eta handiagoa egiten. Modu klinikoan behatu dezakegu, baina hortza nabarmen ahuldu da eta, orohar, tratamendu handiagoa behar izaten du (endodontzia, berregiteak, koroak...). Eta tratamendu hori, zalantza barik, pazientearentzat garestiagoa izateaz gain, kontsultara gehiagotan joan beharra eragingo dio. Baina, hala ere, **garrantzitsuena hortza etorkizunerako ahulduta, askoz ere**



HORTZ-DIAGNOSTIKORAKO LASERRA



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552


www.clinicairazabal.com

info@clinicairazabal.com

Hortz-diagnostikorako LASERRAK ABANTAILAK BESTERIK EZ DAKAR PAZIENTEARENTZAT




ANTONIO MURILLO doktorea



AINHOA ZULUETA doktorea

Tratamendu aurreratuenak Irazabal Hertz Klinikan



Klinikoki ez da txantxarrik ikusten...

hauskorragoa geratzen dela da.



...ezta erradiografia bitartez ere...

Hortz-diagnostikorako LASERRA erabiltzen hasi gara gure klinikan. Minik ematen ez duen eta inolako arriskurik ez dakarren teknikari esker, **ahoa hasberriak diren txantxar guztien %96 antzeman ditzakegu.** Gainera, txantxarrak erradiografiak egiteko premia barik antzematea ahalbidetzen digu eta, beraz, benetan erreala den erradiazioaren arriskua saihesten dugu. Diagnostikorako LASERRAK txantxarra sa-soiz antzematea ahalbidetzen



...baina, ikusten ez badugu ere, txantxarra hor dago...

digu eta, horri esker, tratamendua askoz ere sinpleagoa izango da: **enpas-tea egitearekin nahikoa izango da, kontsultara ez da horrenbeste alditan joan beharrik izango, min gutxiago eragingo dio pazienteari, merkeagoa irtengo zaio...** Eta, are garrantzitsuagoa dena: **hortza erabat osasuntsu egoten jarraituko du.** Etorri gure zentrura eta diagnostikorako LASER bidezko azterketa egingo dizugu, inolako konpromiso barik.

DIAGNOSTIKO KONBENTZIONALA	LASER BIDEZKO DIAGNOSTIKOA
X izpiak erabiltzen ditu, erradiazio kaltegarria	Ez du X izpirik erabiltzen
Txantxarren %60 antzematen ditu	Txantxarren %96 antzematen ditu
Diagnostikoa berandu egiten da	Diagnostikoa goiz egiten da
Tratamendua mingarria eta garestia da	Tratamendua minimoa eta merkea da
Hortza, tratatuta ere, ahulduta geratzen da	Tratatutako hortza osasuntsu geratzen da
Diagnostiko ez fidagarria	Diagnostiko fidagarria



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Olentzero & Co!

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.050 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

GORBI.- Lodia, guria, sasoikoa. "Gizon gorbixa dago, eitten daben lan guztiagaz".

GORDIN.- Sasoi betekoa. "Zure senarra, gizon gordiña dago ondiokan".

GORRIN.- Landareek izaten duten gaitza. "Aurten garixak gorriña dakarre".

GORRIZKA/GORRIX KARA.- Gorri antzekoa. Gaztelera "rojizo".
"Teilla-perretxikuak gaiña gorritzia izaten dau".

ESKUTITZAK

UDALARI ESKAKIZUNA

Karta hau udalari zuzenduta doa. Ipuruan, batez be Santiañes kalia bizi garanok, gauza bat eskatu nahi detsagu udalari: barranderuak egunero bialtzeko, batez be, eurixa egitten dabean eta haizia dabillenan; hain zuzen be, jua zan eguenian, Eroskira nindoiala, nere aurrian andrazko bi jausi ziran, lurra orbelez bete- ta eta bustitta zegualako. Horrez gaiñera, esan nahi dogu anexo aurrian zakarrontzi bakarria daguala eta, mesedez, eskertuko genduke tetrabrik eta kartoientza- ko kontenedoriak be ipintzia.

KONTXA LASPIUR ETA IPURUAKO HAINBAT BIZILAGUN

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Gazte sasoiaren kamioietan joaten ginen mendira, autobusak ere oso gutxi ziren-eta. Atzean aulki luzeak eta toldoa jarrita egiten genuen bidea Aizkorriara, Gorbeia edo Aralarra. Aralarra, esaterako, goizeko seiatarako Maltzagara oinez joaten ginen, Eibartik Iruñera zihoan autobusa hartu, Lizarrustin jaitsi, eguna mendian eman eta arratsaldeko seiatan hartzen genuen berrito itzulerako autobusa. Maltzagatik etxera, noski, oinez itzultzen ginen berriz ere"

(Pako Iriondo, algoibartarra eta Mendiko Euskal Federazioko presidente-ohia)

"Zinpeko epaimahaiaren kontuan, jartzen badituzu herritarrak erabakitzeke eta ebazteke eta, gero, horren aurka helegitea jartzea baimentzen baduzu, zer adierazi nahi duzu? Balio du herritarren iritzia? Herritarrek esaten badute akusatua errugabea dela, nor bereziki behar du? Herritarren subiranotasuna gauzatu egiten da zinpekoen bitartez; baina, helegitea baimentzen duzunean, zinpekoen gainetik auzitegi profesionala jartzen duzu. Hor kontraesana dago"

(Iñaki Esparza, Zuzenbide Prozesaleko katedraduna eta EHUKo irakaslea)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Diputaziñokuak gure herrixan



MARKEL OLANO DIPUTATU NAGUSIXA COLISEON EGON ZAN AURREKO AS-TIAN, ENEKO GOIA BOZERAMAILLE ETA AZPIEGITURA ARDURADUNARE-KIN BATERA, Foru Aldundia Zure Herrian izeneko ekimenari jarraituta. Herritarak zuzenian politikueri egindako galdereri erantzuna emoteko asmuarekin sortutako ekimena Eibarrera ailegau aurretik beste 14 herritan garatu dabe. Herriko kazetarixekin batu eta jarraixan, 150 bat lagun alkartu zan antzokixan galderak bota eta euren kezkek plazaratzeko prest. Hala ere, ekitaldixaren lehenengo zatixan ekimena bera eta hainbat dato azaltzen jardun eben Olanok eta Goiak, Diputaziñuak egitten daben biharra han batutakueri ezagutzera emoteko ahalegiñari jarraituta. Eibarri buruzko proiektorik garrantzitsueri errepasua emotian, barriz, Tekniker sendotzeko erabiliko diran 9 millioi euroko inbersiñua modu berezixan azpima-



rratu nahi izan eben. Ondoren etorri ziren herritarren galderak, baiña une horretan esku artian erantzun zihetzak emon ahal izateko datorik ez zeken eta, beraz, erantzunak nahiko orokorrak izateko inpresiuarekin urten eben han batutakuetako askok. Foru Aldundixak wew.zure herrian.net atarixan jasotzen dihardu herririk herri egindako ekitaldixen gaiñeko materixala, tartian herritarrak egindako galderetako batzuk.



Magostoaren zelebraziñua.

Gaztaiñeri lotutako jaixeri agur

ASTEBURUAN OSPATU EBEN AS BURGAS GALIZIAKO ETXEKUAK "MAGOSTO" JAIXAK, zapatu arratsaldian eta domeka eguardixan. Ribeiro arduarekin lagundutako gaztaiñen salmentia txukun juan zan zapatuan, eguraldixa lagun, baiña domekan ez eben horrenbeste zorte euki. Edozelan be, pozik dagoz urtero ospatzen daben jaixaren emaitzarekin eta bertan batutako diruak musikia eta dantzak eskintzen dittuan Os Galaico taldekuendako lagungarrixa izango da, duda barik. Astelehenian, barriz, trikitalarixak lagundutako kalejiriarekin ospatu eben Gaztaiñerre AEK euskaltegi-kuak eta eurekin batzera animau ziran guztiak. Tabernarik taberna, pintxo eta bertsuen artian, ederto pasau eben batu ziran guztiak.



Gaztaiñerre ospatzen.

**PURRITX, PORROTIX
ETA MARI-NOTOTS**

**berriro ere
EIBARREN**

**'Ongi etorri.. Pupu eta Lore'
ikuskizun berriarekin**

**Abenduaren 11n
16.30 / 19.00**

**Abenduaren 12an
16.00 / 18.30**

Irailaren 30erako kuota eguneratuta duten
BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA
azaroaren 26ra arte (6'50 euro)

Bazkide bakoitzak: 3 sarrera gehienez
Salmenta ordutegia ...eta kittol-n:
08.30-14.30 eta 16.00-19.30

GAINONTZEKOAK: 27tik aurrera (7'00 euro)
e&m argazkidenda, El Tío Palancas, Gozoki eta ...eta kittol-n



Oliver maguaren ikuskizunak txalo zaparrada bat baiño gehiago jaso eban. / SILBIA HERNANDEZ

Beheko Tokikuak XV. urtemuga ospatzen

BEHEKO TOKI KARMEN KALEKO JUBILAUEN ETXIA INAUGURAU EBELA 15 URTE BETE DIRA eta, horren harira, programaziño berezixa euki dabe nagusixak azken egunotan. Hillaren 8xan ekin zetsen ospakizuneri, karta-joko txapelketa eta bestelako jokuen inguruko konpetiziñuekin. Hori normalian baiño sari bikoitza banatzeko kina berezixarekin ahaztu barik. Aste-

burura gerturatzan juatiarekin batera, jokuak tarte gehixago laga zetsen jaixari eta, holan, aurreko eguen arratsaldian, bizkotxo eta bolluekin lagundutako txokolatia jan ondoren, Alvaro Oliver maguaren ikuskizunarekin primeran pasau eben jubilau etxia bete eben bazkidiak. Domekara bittartian, beste merixenda berezi batzutarako tarterik ez zan falta izan.



PSE-EEko eta UGT-ko ordezkariak izan ziran liburuaren presentaziñuan. / ADRIAN ALVAREZ

Juan de los Toyos goguan

AURREKO EGUENIAN PRESENTAU EBEN UNTZAGAKO CASA DEL PUEBLON "JUAN DE LOS TOYOS GONZÁLEZ. BIOGRAFÍA DE UN PEQUEÑO GRAN HOMBRE". Juan de los Toyos fundaziñuak argittara emon daben liburuá Ángel Comonte Santamaríak idatzi dau eta lana osatzen daben 120 orrixetan gaur egun Eibar-

ko alkatia dan Miguel de los Toyos aitxitxa zanaren bizitzari errepassua emoten detsa. Liburuaren protagonista jaixo zala 120 urte betetzen dirala ospatzeko asmuarekin egindako liburuaren aurkezpenian alderdi sozialistako zeññ UGT sindikatuko ordezkari mordua batu ziran, beste hainbat herritarrekin batera.

auzoric auzo



Egigurentarreneko tontortxuekin kejau dira

Egigurentarreneko parkian, umiendako ziburuak daguzan tokixan askoren iritiz jausteko baiño balio ez daben tontortxo batzuk dagoz eta, han inguruan bizi diranak eta umiekin parkian ibiltzen dan jendia be *"behññ eta barriz kejatzen jardun dabela"* salatu dau Eli Gómez Laconcha EB-Berdeak alderdiko ziñnegotzixak. Bere esanetan, jendia tontortxo horren kulpiagaittik sarrittan lurrera jausten da eta presentau dittuen kejeri, oiñ arte behintzat, ez detse kasurik be egiñ Udalian, *"behññ baiño gehixagotan jausitta hartutako miña nahiko haundixa izanda be. Txorkatilla eta eskumuturretan hartutako kolpiengaittik askotan medikura juan bihar izan dabe"*. Ezker Batuko ordezkariak egindako adierazpenen barri jaso eta segiduan erantzun dabe alkatetzatík. Ohar batian esplikatzan dabenez, *"gai konkretu honen gaiññian Udalera modu formalian zein zuzenian guri esanda aillegau diran kejak hiru izan dira eta konpontzen ahalegindu gara, baiña egurdixak ez desku aukerarik emon, lurra lau egunetan busti barik egotia bihar dalako"*.

eibar kaleka

Mandiola auzua

Baillara zabala da Mandiolakua, Elorreta aldetik hasi eta Azpiri basarrira arte doia eta sartaldian Gorosta baillararekin egitten dau muga, baiña auzo bixak ondo bereziztuta dagoz: Santa Kurutz ermittatik Matsarira doian kamiño zaharra da mugia. Gaur egunian 29 basarri dagoz baillaran, baiña beste sasoi batian oin desagertuta daguzan beste 16 basarri be egon ziran auzuan.

Pegora kopurua: 36

Erroldatutakoak: 81



asteko
16.000
datua

tona zabor dira azken urtian Debarrenako biztanliak sortutakuak. Mankomunidiaren datuetan, iraillera arte 6.000 tona jaso ditue bakarrik Eibarren. Hau da, eibartar bakoitxak 227 kilo zabor sortu ditu 9 hillebeteko tarte horretan, 25'50 kilo hilleko.

a u t u a n

PEDRO ZELAIAREN TONBOLIA


Gaur 19.30xetan zabalduko dabe Ibarburuzteko iturrixaren parian Pedro Zelaia Memorixalaren tonbolia: 200 kopin banatzeko asmua dake eta zozketan parte hartzeko txartelak euro batian salduko ditue. Jasotzen daben dirua beste herrialde batzuetan laguntzen duguazten eibartarreri emongo detse. Aurrerantziaren goizez eta arratsalde zabalduko dabe tonbolia (10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 19.30xetara).

SETIEN HILLAREN 25-IAN PORTALEAN

Jose Maria Setien-ek aste honetan emon biharreko hitzaldixa bertan behera laga bihar izan eben azken orduan, baiña aurreikusitta eguan gaixari jarraituko detsan hitzaldixa hillaren 25ian emongo dau Setien-ek berak, Portalean 19.30xetan.

Eroski barrixa astelehenian inaugurauko da

ASTELEHENIAN EGINGO DABE IPURUAKO EROSKI BARRIXA INAUGURATZEKO EKITALDIXA, baiña bakarrik inbitaziñua jaso daben 200 bat lagunek izango dabe bertan parte hartzeko aukeria. Bestiak beste, Agustin Markaide Eroski taldeko zuzendari nagusixak eta Miguel de los Toyos alkatiak parte hartzia dago aurreikusitta. Eroskitik azaldu deskuenaren arabera, merkataritza gunia haunditzeko biharretan 15 millioi eurotik gorako inbersiñua egin dau Eroskik. Horri esker 70 enplegu zuzen eta ziharkako 10 enplegu gehixago sortu dituela diñue taldeko arduradunak: *“Lanpostu horretatik 50 supermerkauan bete dira, 9 saltokixetan eta 10 mer-*




15 millioi eurotik gorako inbersiñua egin dau Eroskik.

kataritza guneko hainbat zerbitzuri lotutakuak dira. Langile barrixen%70 eibartarrak dira”.

Eroski barrixak 519 aparkaleku eskinduko detsez bezerueri, salmentarako azaleria 6.700 metro karratukua da eta

hortik aparte, 2.300 metroko azaleria betetzen daben beste gunen batian telefonixarekin eta gaztien zein haurren moda eta oiñetakuakin lotutako eskintza egongo da, 9 lokaletan banatuta.



Azaruaren 25aren inguruko ekitaldixak

GAUR GOIZIAN EMON DITTUE EZAGUTZERA ANDRETXEAN GENERO INDARKERIA SALTZEKO EGUNA DAN

Azaruaren 25aren inguruan antolatutako ekitaldixak. Egunian bertan (eguenian) plaza barrixan kontzentraziñua egingo dabe “Beldur Barik” esaldixa erakutsiko daben pankartia zabaldu. Gaiñerako jarduerak hurrengo hillian, abenduan

egingo dira: abenduaren 2rako”Amores que matan” filme laburra duan emongo dabe udaletxian eta jarraixan tratu txarren inguruko kafe-tertulixa modukua egitteko asmua dake, Jaione Iriarte psikologuak eta Enma Larreta antzezliak gidatuta.

Bestalde, “Anbotorako bidean Mariren gerrikoa” antzezlanua eta jolas-taillarra eskinduko dabe abenduaren 22xan (abenduaren 17ra arte emon leike izena Pegoran) eta zapatu batian (urtarrillak 15) andrazkuendako autodefentsa taillarrerako izen-emotia, barriz, urtarrillaren 12ra arte egongo da zabalik.

Parkinson gaitzarekin akordatzeko arbola

ATZO EGUARDIXAN, DE-PARKEL DEBABARRENAKO PARKINSON ELKARTEAK ETA ESPAIÑIA MAILLAKO PARKINSON FEDERAZIÑUAK,

Nazio Batuak ingurumenaren babesa bultzatzeko programarekin bat eginda, Parkinson gaitza goguan arbola landatu eben. “Parkinson-a goguan arbola landatu deigun” lemiari jarraituta, Bidebarrieta kaleko lorategixetako bat aukeratu dabe arbolatxua ipintzeko, San Andres eskola pareko jardiña, hain zuzen be. Muguru-zatarrereri eskindutako monolituaren aldamenian ipiñi dabe arbolatxua Deparkel alkarteko


ordezkarixak, Jesús Rementeria Ingurugiro ziñegotzixak lagunduta. Gaitza gizartiari ezagutzera emoteko helburuarekin garatutako ekimena Eibarren ez eze beste 32 herrittan egin

dabe. Deparkel alkartiarekin kontaktuan ipiñi nahi dabenak, deparkel@deparkel.org helbidera idazteko aukeria dake edo, bestela,943202653 telefono zenbakira deittu.



Badira urte batzuk errepidietako zirkulaziñuan zentzudunago jokatzen genbiltzala aditzera emoten eben datuak pillatzen hasi giñala; baiña, oporretatik bueltan, istripuen eta hildakuen kopuruak gora egin dau eta Trafiko Delegaziñua kanpaiña barrizekin hastekua ei da. Puntuen sistemarekin ohittu eta lasaittu egiñ ete gara?

Zelan ikusten dozuz istripuen aurkako kanpaiñak?



AINHOA VEGAS
42 urte
zaintzaillia

Kanpaiñak biharrezkuak dirala uste dot; istripuak galarazteko egitten dan guztia ondo dago. Batzuetan, hildakuak edo zaurittutakuak agertzen diranian, gehiegizko inpaktua billatzen dabela esango neuke, baiña biharbada hori da bihar doguna zelako ondoriuak izan leikezen jakitkeko.



ALFREDO IBARRETXE
48 urte
bihargiña

Ondo begittantzen jata kanpaiñak egittia, ahaztu egitten dogu-eta istripuak guk be izan geinkezela; beti uste dogu bestien kontua dala eta guri halakuak ez jakuzela pasauko. Irudi gogorak agertu arren, gure atenziñua bereganatzia lortzen badabe, ondo dago: guk be halakuak bizi geinkez-eta.

CRISTINA SÁNCHEZ
33 urte
kutxazaiña

Ez diittut oso eraginkor ikusten. Zenbait gauza edo ohittura aldatzia gatxa topatzen dot, telefonoz berba egittiarena, esaterako: sarrittan ikusten dot jendia telefonoz berba egitten. Gure jardun horrek izan leikezan ondorixo larrizaz ez gara konsziente. Beti uste dogu bestieri gertatuko jakuela.



JUAN SAN ROMAN
74 urte
jubilaua

Kanpaiñak egittia ondo ikusten dot, baiña legiak be gogortu egin bihar-ko litzakez. Alkoholaren gaixarekin, esaterako, kanpaiñak eginda be, asteburuero istripuak egoten dirala irakortzen dogu. Sarrittan, edanda doiazenen erruagaittik, beste batzuk hiltzen dira eta hori onarteziña begittantzen jata.



OKora eibar
Isasi, 18 943 53 12 59

100 m²ko
autozerbitzua

**Altzariak.
Menajea.
Bainurako
osagarriak.
Ehungintza.
Argiztapena.
Opari
pertsنالak.
Osagarriak.**

- euritako-ontzia
(New York): 43'90 €
- autobusa (Londres): 27 €
- koadroa (Muxua): 65 €
- pub zuria: 95 €

EGOITZA NAGUSIA
Bilbarrizeta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errausketa labea
Egoiberran (Signo poligonar).
Partikular, mutua eta osaguri esatei zerbitzuak
Korak - Eskelak - Urturionako eskelak
Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaizgu
Nazio eta Nazioarteko Iratziak

Mugica Ehorzketa
Funeraria labea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Urriaz geroztik eta 2012. urtera arte Karmele Artetxe izango da Udako Euskal Unibertsitateko zuzendaria, Markeskua jauregian ikasturtea irekitzeko ekitaldian aho-batez hartutako erabakiari jarraituta. Zuzendari berriaren aurkezpena Uztaro Giza eta Gizarte zientzien aldizkariaren 20. urteurrena ospatzeko ekitaldian bertan egin zuten.

KARMELE ARTETXE, UEUko zuzendaria:

“Orain arteko lan-ildoari jarraitzeko asmoa dugu”

- Nolatan ailegatu zara UEU-ko zuzendari kargura?

Proposamena nahiko modu naturalean ailegatu zitzaidan. Lehenagotik ere bananbilen UEU-n beharrean, proiektu arduradun gisara, UEU-ko bazkidea ere banaiz... Beraz, eskaintza egin zidatenean ez nuen larregi pentsatu behar izan, aurretik ezagutzen nuen zerbaiten inguruko proposamena zelako eta pozik hartu dut ardura berria.

- Zuzendari aldaketak derrigorrean ekarriko dio bestelako aldaketarik UEU-ri berari?

Berez 11 kidek osatutako zuzendaritza-talde batek zuzentzen du UEU, talde horrek ateratzen ditu aurrera proiektuak eta beste-lakoak. Zuzendaria aldatu arren, lehenagotik martxan zegoen lantaldean ez da aldaketarik izan, beraz



Karmele Artetxe Sánchez (Zamudio, 1976)

UEU barrutik ezagutzen duen zuzendaria, Historia doktorea, ikertzailea eta une honetan UPV/EHUko irakaslea da. Orain arte UEUko Proiektu Arduraduna izan da eta aurretik UEUk sortu eta garatutako Inguma datu-basean dokumentalista ibili zen. Gasteizen Historia karrera ikastean ezagutu zuen UEU. Berehala egin zen bazkide. Geroztik Historia Sailaren

zenbait proiektutan parte hartu du, hala nola, “Historialari Euskaldunen topaketan” antolaketan zein liburu-argitalpenetan (besteak beste, “Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII. eta IX. mendeetan” eta “Ikerketa berriak Euskal Herriko Historian”).

Inguma datu-basetik abiatuta, “Komunitate Zientifiko Euskalduna. Azterketa historikoa eta bibliometrikoa” izenburuko doktorego-tesia defendatu du aurtan. Bertan goi mailako euskarazko produktzioa, kide kopurua eta azpiegitura deskribatzen ditu, bilakaera historikoa azaltzarekin batera. Historialari eta dokumentalista den neurrian, esparru diak uztartu zituen tesian.

Une honetan bere ikerketaren ildo nagusia jarraian aipatzen dugun gaiak osatzen du: euskara zein beste hizkuntza gutxituen erabilera goi mailan, bereziki unibertsitatean, XX-XXI. mendeetan.

orain arteko ildoari eutsiko zaio aurrerantzean ere. Taldean dauden kide guztiak eta euren jarduna ondo ezagutzen ditut lehendik ere eta, horregatik hain zuzen ere animatu nintzen zuzendari karguari baietz esatera.

- Dena dela, zuzendari modura bereziki erakartzen zaituen ideien bat badarabilzu buruan?

Gehienbat orain arte hasita dauden proiektuekin aurrera egiteko asmoa dugu, horiei eustea da gure helburua. Kontuan izan behar da ekonomia mailako krisia hor dagoela. Gure kasuan, gainera, krisiak ez du esan nahi jende gutxiago etorriko zaigunik, hain zuzen ere horrelakoetan askok denbora librea ikastaroak eta bestelakoak egiteko aprobetxatzen duelako. Gurean krisiaren eragina diru-laguntza eta bestelako finantziazio bideei lotuta somatu daiteke.

- Zeuen ikastaroetako eskaintza ere gero eta zabalagoa da, bai lantzen diren gaien dagokionez, bai egutegiari dagokionez. Nolako da zuengana joaten den publikoa?



2012ra arte izango da Artetxe Udako Euskal Unibertsitateko zuzendaria. / SILBIA HERNANDEZ

Etengabeko formakuntza bila datozen profesional euskaldunek osatzen dute gure publikoaren zati handi bat, eta erdia baino gehiago 30 urtetik gorakoak dira. Praktikak erakutsi digu UEU ezagutzen duenak badaukala gure eskaintzaren berri eta, aldiz, UEU ezagutzen ez duenarentzat erabat ezezaguna direla gure jarduna, eskaintza eta bestelako kontu guztiak.

- Badira urte batzuk egoitza nagusia Eibarren, Markeskua jauregian zabaldu zenuela eta urte osoan beharrean zabilzate. Orain dela gutxira arte jendeak gehienbat udako ikastaroengatik ezagutzen zuen UEU, baina hori baino askoz gehiago da UEU, ezta?

Bai, udako zein bestela, urte osoan ematen diren ikastaroez gain graduondokoak ere eskaintzen ditugu. Liburugintzari dagokionez, berriz, urtero 12 liburu ematen ditugu argitara eta hiru aldizkari ere kaleratzen ditugu: “Uztaro” zientzia ikerketari lotutakoa, “Aldiri” arkitektura arloko aldizkari berria eta “Kondaira” interneten irakur daitekeen historia arloko aldizkari elektronikoa. IKT Tresnak atalean, berriz, Inguma euskal komunitate zientifikoaren datu-basea, Softkat euskerazko software katalogoa eta unibertsitatea.net ataria aipatu daitezke. Azken horretan, besteak beste, ikasleentzat doaneko orientazio zerbitzua eskaintzen dugu. Interesa duenak horiek guztiak eta gehiago www.ueu.org gure webgunean kontsultatu ditzake.

Hortzordeekin arazoak?



Goiko hortzordeak

- ✓ Janarien zaporea blokeatzen du
- ✓ Plastikoz artifiziala
- ✓ Itsasgarri likatsuak
- ✓ Hozkada ahula
- ✓ Goragaleak
- ✓ Egoera deserosoak



Goiko aldeko inplanteak


- ✓ Ahosabai garbia
- ✓ Plastikorik gabe
- ✓ Itsasgarririk gabe
- ✓ Hozkada indartsua
- ✓ Goragalerik gabe
- ✓ Ustekaberik gabe

Zure hortzordeek jaterako oztopo bihurtu zaizkizu eta zure irribarrea eta itxura lehengoak ez izatea ekarri dizkizute? Orduan, zertarako xahutuko duzu zure dirua adabakietan? Badira soluzio BERRIAK inplanteetarako aurrez baztertutako lagunentzat.

Deituiguzu 902 468 209ra eta korreoz bidaliko dizugubestelako informazio guztia.

Jan eta barre egitea zoragarria izan daiteke berriro!

Ibarbea Zehar., z/g (Rialto Zehar.) EIBAR www.esteticadelasonrisa.com



Andoni Guisasola Ron Dokorea
R.P.S. 156/5

EIBARKO AZOKAREN ZOSKETA

AZAROAK

17-29

HILEROKO ZOSKETA

**25 €-ko 24 erosketa txartel
200 €-ko erosketa txartel bat**



Betiko sustraixak gordeta, baiña gaur egungo ezaugarri moderno eta apurtzailliekin dator oinguan Olentzero. Ikuskizun barrixak elektronikia, rock-a, pop-a, aire latinuak... hainbat musika estilo buztartuko ditto betiko gabon kantuekin. 120 lagunetik gora izango dira eszenarixuan, euretatik batzuk eibartarrak (Birakako dantzariak) ikuskizun aparta eskintzeko. Gaiñera, lanaren estreñaldixa Coliseoan egingo dabe, abenduaren 4an, saio bittan: 17.30xetan lehelengua eta 20.00etan bigarrena. Olentzero moderno jaitsi jaku oinguan!

Famelixa guztarendako aproposa". Holan definitu dabe gure herrixan lehelengo (abenduaren 4an) eta Arrasateko Amaia antzokixan (11n eta 12xan) eta Donostia-ko Kursaalean (30ian) jarraixan eskinduko dan ikuskizuna. Zeozer izatekotan, musikala da: "pop-rock musikala", sortzaillien esanetan; eta Olentzero da protagonista, hori be modernotuta bada be.

Ikuskizunak Bergarako kutsua daka, batez be. Bergararrak izan dira sortzailliak, bertakuak parte-hartzaillietako asko... eta, aurretik be bidia eginda. San Martzial Estampa, Miserableak (lan hau Ipurua kiroldegixan eskindu eben oin dala ixa hamarkada bi), Oliver! eta Seussen Mundua bergararren inspiraziñotik sortutako lanak dira.

Oinguan Oihan Vega musika eta ETBko aurkezlia eta

BIRAKA-KO DANTZARIEK HARTUKO DUTE PARTE

Olentzero modernuena Coliseoan abenduaren 4an

Txemi Etxebarria Maastritcheko orkestra sinfonikuaren zuzendarixena izan da ideia. Eta parte hartzen dabenak Hontza Produksiñuak, Bergarako Musika Eskola, Bergarako Orfeoia, Aritzeta abesbatza eta, eurekin batera, Eibarko Biraka dantza taldea. Josu Mujika koreografiuak diñoskun moduan, "hoge dantzarien artian, Debako bi kenduta, bestiak Eibar-kuak dira".

Formatu haundiko ikuskizuna danez, eszena munduko ixa disziplina guztiak lantzen dira. "Olentzero & Co!"-n dastatzeko aukeria dakazue: aktoriak, abesbatza, orkestia zuzenian jotzen, balleta, akrobatak, zine proieksiñua... "guztira, 150 lagunetik gora show-ean parte hartzen, tartian 30 ume".

Musikal apurtzaillia

Modu horretan definitzen dabe espektakulua inguruan biharrin jardun dabenak. Hiru urte dira batzuen buruan proiektua forma hartzen hasi zala, "ametsa egixa bihurtu arte". Musikal apurtzaillia eta modernua da taularatuko dabena, baita fami-

liarra, "haur eta helduentzako egiña eta ritmo bizikua". Broadway tankerakua josi dabe, "Olentzero modernua, baiña betiko sustriak ditтуana".

Jendiak zer aurkittuko daben? Zerekin egingo daben topo? "Ahozabalik lagatzia da gure asmua", diñue Vegak eta Etxebarriak. Eta eritzi berekua da "Goiazen" Euskal telebista-ko telesaila eta pelikulako koreografiak egiñ eban Mujika be: "Goiazen-en aurkezpenian kontau zestan asmua Vegak. Berak musika baekala eta, urtebetetik gora da proiektuan hasi nintzala. Dantzariak geruago hasi dira, baiña irailletik geratu barik dabiz".

Mujikak ez dau lan zailtzat hartu espektakulorako dantzarena: "Dantzaz osatzia ez da berez gatxa; ondo geratzia da muiña, historixan integratzia". Berari be atenziñua deittu detsa "Olentzero hartu dan moduan tratatzia: ez da mitologixako personaje hura, ikutueziña. Maridomingirekin dakan harremana iñoiz ez dot ikusi".

Musikalak nortasun berezixa daka eta abesti tradizionalak be



Azaruaren lehelengo astian aurkeztu eben "Olentzero & Co!" Portalean.

JOSU MUJIKAK, koreografoa

"Itxaron-zerrendia dakagu Birakan"

JOSU MUJIKAK, LEHEN TRISKAREKIN ETA OIN BIRAKAREKIN, BERAK IZAN EZ ZUEN AUKERA ESKAINI NAHI DIE GURE INGURUAN DANTZA MAITTE DABENERI.

- Zer moduz Birakan dabilen herriko dantzarixekin? Harrobixa lantzia lan gata da?

Zortzi urte izango dira hasi gina eta gustora oso, jende kopuruak gaitzeka egiten badesku be. Hori dala-eta, itxaron-zerrendia beteta dakagu, baiña tokiak ez dau gehixagorako emoten.

- Jendiaren billakaeria be ez zan izango nolannahikua...


Asko hazi da: batzuk, hasieratik dagozenak, zortzi urte nagusixaguak be bai, eta heldutasun hori igartzen da. Lehelengo jaialdixetan Untzaga gaitzeka ikustetik Coliseora egin dogu salto azken aldixan. Dana izan bihar da kontuan.

- Zenbat jende hartzen dozue Birakan? Mutillik bai?

Eibarren, Deban, Elgoibarren eta Mendaron gagoz eta, guztira, 300 bat izango dira. Eta bai, mutillak be badagoz, askoz gitxiago izan arren. Hori bai, adin batetik aurrera, jendiak "jo ta su" jarraitzen dau.

- Etorkizunerako proiektuak be izango dittuzue, ezta?

Berdintasunerako Sareak antolatutako "Adiera zaitetz beldur barik" programarako aurkeztuko dogun ikuskizunetik aparte, Donostian dabillen kulturaren hiriburuaren inguruko eszenario horretan, guk be dantzaren Europako hiriburuaren bidetik joko dogu, Eurodancing espektakularekin. Flash-mob izango da, hau da, berehalako jendetza moduan itzuli leikiana. Amberesen eta Liverpoolen egin dira halakuak, kalia batzuk dantzan hasi eta inguruko guztiak jarraituz.



Oier Arevalillo eta Karlos Etxaniz izango dira Peru eta Olentzero musikalian.

beste modu batian tratau dira oinguan: "Olentzeroren agerpenetik hasitta, musika teknuarekin sartzen da-eta eszenari-xuan", diño Josuk.

9 urteko protagonista

Oier Arevalillo da mutil protagonista, "60 gaztetxuen artian egindako kasting-ean aukeratu-takua". Bere ahotsaren tinbriak eta ezaugarri fisikuek emon detse paper hori. Peru izango da musikalian: gurasuak istripu baten galdu zittuan eta ugazama gaizto batekin biziko da. Peruk zer eskatuko detsan Olentzerori? "Zoriontasuna, besterik ez". Barritasunen artian, "jantzixak

be ateporalak dira, ez da basarritarren kontua, pelukak erabiltzen dira... Orkestia be profesionala, gitarria, bajua, pianua, sintetizadoriak... zentzumenak puripurian ipintzeko moduan".

Ugazama gaiztuak Olentzerori bialdutako kartia apurtuko detsa Peruri eta hau Olentzeroren billajuango da, aurrez-aurre ezagutu arte. Ibilbide horretan, lamiak, iratxuak, Anbotoko Mari, Mari Domingi eta euskal personaje mitologikuekin egingo dau topo. "Emozionantia. Jendia protagonistarekin identifikauko da". Eibarrera etorri aurretik, ensaio orokorra egingo dabe, "umientzat bakarrik", Bergarako frontoian.

66553
...eta kitto!-ko
GABONETAKO LOTERIA

salgai duzu:
Mujika harategia
Urkizu prentsa
Bofintxo
Zabaleta okindegia
Narua konplementuak
San Andres gozotegia
Askasibar kirolak
Kultu taberna
Valenciaga jantzidenda
Udal Euskalategia
AEK Euskalategia
Isasi okindegia
Izadi loradenda
Untzaga prentsa
Dibutec fotokopiadenda
Zubi-Gain kafetegia
Bankoa
Correos
...eta kitto!

Loteria hartzailen artean, abenduaren 15ean GABON-OTARRA zozketatuko da

etxolajatetxea@hotmail.com
Erreserbak: 943-207019
Txirio kale, 1

etxola
JATETXEA

Eguneko menua / Karta / Pintxoak
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

Radio Eibar
C A D E N A
SER
104,0 FM

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

NIRE TABERNAN "MUSIKA LIBREA" BAINO EZ BADUT IPINTZEN, SGAE-RI EGILE ESKUBIDEENGATIK ORDAINDU BEHAR DIOT?

Taberna, jatetxe, hotel edo musika ipintzen eta entzuten den edozein lokal publikok musikagileen egile eskubideengatik ordaina eman behar diote SGAEri, baina honako kasu honetan bakarrik: entzuten den musika horren egileek ez badute bere lanaren gaineko "copyright" a baztertu. Ostera, gero eta gehiago dira "copyright" lizentziari uko egin, eta beren musika "creative commons" lizentziaren pean argitaratzen duten musikariak, horri esaten zaio "musika librea". Lizentzia honek ekartzen du, besteak beste, musikaren erabilera baimentzea horretarako ordaindu behar izanik gabe. Beraz, "creative commons" lizentziarean argitaratutako musika ez dago SGAEren erreperorioaren barruan, eta lokal batean musika hori baino ez bada entzuten, ez dago SGAEri kanona ordaindu beharrik. Gertatu dira kasuak SGAEk lokal jakin bat auzitara eramane duena, lokalak frogatu epaitegian ipintzen zuen musika guztia "creative commons" lizentziaren araberakoa zela, eta ondorioz, epaileak lokal jabeari arazoia eman, ebatziz lokal horrek ez diola SGAEri ezer ordaindu behar egile-eskubideen ordainarengatik.



Zuzenbideari buruzko edozein zalantza izanez gero, idatzi erredakzioa@etakitto.com helbidera; hurrengo alean zalantza horiek azaltzen saiatuko gara.



Elena Laka
abokatua

BIDEOZAINZAKO KAMARA BAT IPINI DEZAKET KALEKO IRUDIAK ETENGABE GRABATZEKO?


Ezin daiteke pertsona baten irudirik grabatu edo irudi horrek argitaratu pertsona horrek horretarako baimenik eman ez badu, edo adostasuna agertu ez badu bideozaintzako kamarekin. Toki publikoetako bideozaintza Estatuko Segurtasun Indarrek baino ezin dute egin, eta beti euren araudiaren arabera. Gainerako kasuetan, bideozaintzako irudiak grabatzeko, segurtasun pribatuko legediarekin bat egin behar da, edo administrazioaren baimenez. Kasu hauetan beti herritarri ohartarazi behar zaio bideozaintza sistema badagoela, irudiak grabatzen ari direla, eta irudi horiek, datu babeserako legediaren arabera erabiliko direla. Hala ere, ez segurtasun pribatuak ez administrazio baimenak ez dute ahalbidertzen kalea bere osotasunean grabatzea. Kasu horietan kamarek bakarrik zaindu eta grabatu ahal izango dituzte eraikinen sarrera-irteerak, edo lokal baten edo espazio publiko baten toki jakin batzuk, ez kale osoa. Bestela, horrelako irudiak hartzen ibiliz gero, herritarren intimitate eskubidea urratuko litzateke, eta hori salagarri litzateke.



Rocka, punka eta metalaz osatutako gaua Espaloian

Danbakako IV. edizioak aurrera segitzen du. Gaur gauean musika kontzertuak izango dira Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, honako taldeekin: Abadiño eta Durangoko Doctors Klub, Bergarako Rombos Negros, Mutrikuko Karpovian Projekt eta Oñatiko Ez!

Ohikoa denez, 22.30etan hasiko da musika emanaldia. Bizkaitarrak izango dira josten lehenak. Rock musika taularatu du boskoteak, euskaraz eta ingelesez egindako kantuen bidez. Jarraian, punk-rockaren txanda iritsiko da, Rombos Negros Bergara-



ROMBOS NEGROS / Bergara

Hirukotea 2004ko udaberrian sortu zen. Navak (gitarra eta ahotsa) eta Emborujok (bateria) jarri zuten proiektua martxan. Gasteizen. Handik gutxira, Bergarako Mikel (baxua) sartu zen. Punk-rock musika egiten dute eta gaztelaniaz abestu. Ez dute gaur egungo gizarte edo politikaz jarduten; bizitzan zehar pasatutakoekin egiten dituzte abestiak, eta horiei originaltasun ukitua ematen saiatzen dira.


ko hirukotearen eskutik. Mutrikuko Karpovian Projekt-ekoek, ostera, rock-metal progresiboa eskainiko dute. Eta, amaitzeko, Oñatiko Ez! taldekoak igoko dira agertokira.

Gainera, Espaloian batzen direnen artean saria zozketatuko da. Arrasateko Ganesha tatuaje-dendako tatuaje-bonoa irabaziko du Danbaka lehiaketako zale batek. Bestalde, kontzertuetarako sarrerei dagokienez, gogora ezazue Gaztekutxarekin salgai dardela, hiru euroren truke. Espaloiko leihatilan bertan hartzea nahiago dutenek bost euro ordaindu beharko dituzte.



KARPOVIAN PROJECT / Mutriku

Rock-metal progresiboa egiten duen taldea da Karpovian Projekt. Zenbait kidek elkarrekin aspalditik jotzen badute ere, 2008ko abuztura arte ez zen elkartu gaur egun taldea osatzen duen boskotea: hain justu ere, Beñat (ahotsa), Aner (gitarra), Iker (gitarra), Iñaki (baxua) eta Aymar (bateria). Euskaraz abesten duen talde horrek Mutrikuko Udalaren lokaletan entseatzeko du.



DOCTORS KLUB / Abadiño-Durango

Iraultzak, Jonkolek, Ehiarrek, Aritzek eta Urtzik osatzen dute taldea. Orain dela bi urte elkartu ziren Aritz eta Urtzi lehenengoz Tabira parkean, ilargipean inprobisatzeko asmoz. Bi abesti eginda zituztela, Iraultza batu zitzaion eritimo psikodelikoekin baterian, eta Jonkol punteatze hiltzaileekin. Azkenik, Ehiar sartu zen. 2009an euskaraz eta ingelesez abestutako zortzi kantu grabatu zituzten euren kontura lokalean.



EZ! / Oñati

Rock estiloko talde hori 2007ko irailean sortu zen. Honako hauek osatzen dute: Lasa, Mikel, Beñat eta Josuk. Lehenengo kontzertua Arrasateko Gure Leku taberna eskaini zuen laukoteak eta, orduz geroztik, 20 kontzertu inguru eman ditu inguruko herrietan. Laster, Lorentzo Recordsera joango dira, Berrizko estudioa, Aitor Ariñoren diskoa grabatzera.

BARRULE NAGUSIA



kutxa

gazte

LAGUNTZAILEA



m

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

HEDEKIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA





DANBACA

www.danbaka.com

GREMIOEN

GIDA



ANTENAK

BALATZ C.A.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com

trinmer

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 55 55

Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia

C **N**

Egiturak, barruko eta kanpoko ateak, armairu enpotatuak, tarimak, parketak, rodapiesak, eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

AROTZAK

ulmar
S.L.

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA ARANTZUA
ARREGLATUAK
ERRAZKORTZAK

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD
ETA B.S.L.

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 647 90 66 20 / 607 71 38 73

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

• Barne apainketak
• Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

ERREFORMAK

ESTUDIOS
ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ARRAGUETA 12 -Eibar- ROSARIO 15 -Elgoibar-
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

GARBIKETAK

escudero

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

CRISTALUX
Limpieza

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

cristaluxe@gmail.com
Tfnoa. eta Faxa:
943 20 65 08
Mobila:
659 58 35 32 Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superfizie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 26 - 6. C

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta mantenimendua

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK



IRAIZABAL
CONSTRUCCIONES, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}

eta faxa: 943 20 39 03



MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396



Pintura
Goi mailako dekorazioa

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

PINTURAK



AIXA

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

SARRAILAGINTZA

ITURGINTZA



INDA iturgintza

UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxa: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63

Asua-Erreka, 2



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako atearak eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



Pinturas
Elias e Hijo, S.L.

pintura eta estaldura mota guztiak

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97

Gurasoak Berbetan: gurasoek euskera praktikatzeko bilgunea

Familian euskeraren erabilera areagotzeko asmoak bultzatuta antolatu berri du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Gurasoak Berbetan egitasmoa. Guraso ia-euskaldunek euren hizkuntza gaitasuna hobetzea du helburu, eta horretarako, Berbetan mintzapraktika programaren ereduari jarraituz, guraso euskaldunak guraso ia-euskaldunekin elkartuko dira taldeetan, astean ordubete, eurak aukeratutako leku eta orduan.

Sarri esan ohi da gurasoak eredu izan behar dutela euren seme-alabentzat, eta euskera ere ez da salbuespena. Etxe askotan euskera izango da nagusi, baina beste askotan, berriz, guraso euskaldunik ez bada tartean, umeek nekez entzun eta egingo dute euskeraz. Egoera horretaz kezaturik, eta hainbat gurasoren eskaerari erantzunez, jarri du martxan ...eta kitto! Euskara Elkarteak Gurasoak Berbetan egitasmoa. Euskeraz egiteko ohitura sortzeko tresna baliagarria delakoan daude antolatzaileak: *"Guraso ia-euskaldunek txipa aldatu eta euskeraz egiteko ohitura har dezatela nahi dugu. Eta hori lortzen dute, hor dugu Berbetan mintzapraktika egitasmoaren adibidea. Giro euskalduneari murgiltzen dira eta euskeraz berba egiteko lotsa, beldurra edo konplexuak alde batera lagata, euskeraz berba egiteko ohitura hartzen dute. Eta ohitura hori gero, mintzapraktika taldeetatik kanpo ere jartzen dute praktikan".*

Astean behin ordubete

Badira urteak ...eta kitto! Euskara Elkarteak, herriko bi euskaltegiekin elkarlanean, Berbetan mintzapraktika programa martxan jarri zuela. Euskaldun berri edo ia-euskalduneri euskeraz berba egiteko aukera edo txokoa eskaintzea du helburu egitasmoak; azken hori herri osoari zabaldua dagoen bezalaxe, Gurasoak Berbetan gurasoentzako da, haur txikiak dituzten gurasoentzat (Haur Hezkuntzako haurren gurasoak). Guraso ia-euskaldunak guraso euskaldunekin elkartuko dira, astean behin ordubete, eurek aukeratutako leku eta or-



Eguaztenean aurkeztu zuten Gurasoak Berbetan egitasmoa. Argazkian, Lourdes Perea J.A. Mogel ikastolako zuzendaria, Maider Aranbarri ...eta kitto!-ko idazkaria eta Belen Aranbarri, San Andres ikastetxeko ikasketa-burua. / SILBIA HERNANDEZ

duan. Horretarako, euskaldun berriez gain, euskaldunen beharra dutela diote antolatzaileek, horiek gabe ezinezkoa delako talderik egitea. Lehen urte honetan Juan Antonio Mogel ikastola eta San Andres ikastetxeko gurasoekin jardungo dute, baina aurrera begira, herriko eskola guztietara zabaltea da helburua.

Lau talde

Aurten 14 gurasok eman dute izena, 5 euskaldun eta 9 euskaldun berri, eta guztira 4 talde sortu dira. *"Ez da jende asko, baina lehen urtea izateko pozik gaude. Aurrera begira, dena dela, guraso gehiago etorriko direlakoan gaude. Guraso ia-euskaldun askori lotsa edo beldurra ematen die talde baten barruan euskeraz egiteak, baina argi utzi nahi dugu gauza*

informala dela, modu naturalean egingo dira solasaldiak, eta benetan animatu nahi ditugu, hain justu, lotsa horri aurre egiteko oso baliagarria delako egitasmoa".

Ekintza osagarriak

Astean behin elkartzeaz gainera, bestelako ekintza osagarriak ere eskainiko dira, antolatzaileen berbetan: *"Berbetan programan ere, urtean zehar hainbat ekintza antolatu ohi ditugu: txangoak, ikastaroak, bazkariak... Horiek guztiak gurasoei ere eskainiko zaizkie, baina baita seme-alabekin batera egingo diren hainbat ekintza ere".* Taldeak martxan jarri badira ere, urte osoan dago izena emateko aukera. Horretarako ...eta kitto!-ra deitu (943-200918) edo bertatik pasatu (Urkizu 11, solairuartera).

OINETAKO KONPONKETA AZKARRA

Don Takón

merkeena deskontuekin

BAITA...
Giltzen kopia
Konponketak
(polisak, gerriko,...)

Laruzko artikuluen salmenta

639-236-774
Ibarkurutze, 7 - behe

KATU

KALE

BIDEBARRIETA, 1

TABERNA

Haur eta gurasoak Urkiolamendian

AURREKO ZAPATUAN URKIOLAMENDIN IZAN ZIREN KLUB DEPORTIBOAK ANTOLATUTAKO MENDI IBILALDIRA joan zirenak. 50 bat lagun elkartu ziren aipatutako mendira joateko eta, behin gaina zapalduta eta "haurrak indartsu ikusten genituenez", bi talde egin ziren: batzuk Larranora, Anbotoko Marik hankak garbitzen zituen iturrira, joateko; eta, besteak, Anboto azpiko harrobira joan ziren, hamarretakoa egitera. Gero guztiak elkartu eta Urkiolako santutegi ondoan dagoen parkean bazkaldu zuten. Urkiolan Toki-alai interpretazio zentrora joan ziren, haurrak ikus-entzunezko batekin gozatzeko. Haur eta gurasoentzako hurrengo irteera abenduaren 18an izango da, Xoxotera.



Kluben Arteko pilota torneoa fase erabakigarrian sartzen da

HORI DELA-ETA, IPURUA KIROLDEGIKO FRONTOIAK ZIRT EDO ZART EGITEKO NEURKETA BI jasoko ditu bihar, 17.00etatik aurrera. Klub Deportiboko senior mailako bikote bik aurrera egiteko garaipenaren bila kantxaratuko dira: Zubizarreta-Unamunzagak seitik bost partidu irabazi dituzte ligaxkan eta Lazkaoko Arzelus-Garmendia izango dute aurrez-aurre; Egaña-Bengoetxeak, bestalde, Tolosako Aurrera-Zaiatz-eko bikoteari egingo diote aurre, final-laurdenetako partidu bakarrera.

Infantil mailako garaipena areto foballean



10-3 IRABAZI ZIOTEN DEBABARRENA EIBAR TALDEKOEK ERNIOPERI azken jardunaldian. Atsedenaldira ere, markagailuak eibartarren garaipen argia erakusten zuen (6-1). Alex Alonsok entrenatutako goleatzaileak honako hauek izan ziren: Leandrok hiru, Matheusek eta Adrianek bina, eta Unai, Muñoz eta Jonathan gol banarekin. Debarrenako Concepto Createch talde nagusiak, bestalde, 4-8 galdu zuen Yone Boutiquerekin, jarraian galtzen duen laugarren partiduan.

Eibartarrak liderraren atzetik

LEHEN ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOAN, EIBARTARRAK-EK GERTUTIK JARRAITZEN DIO SORALUZERI. Eta puntu bira geratu da azken jardunaldian Unben jokaturako euren arteko norgehiagokan plazentziarrei 3-1 irabazi eta gero. Jardunaldia ona izan zen gure herriko taldeentzat eta, horrela, Urkik 2-4 irabazi zion Soraluze bertako bigarren taldeari. Eibartarren arteko neurketan, bestalde, Gazteak Eibartarrak B baino gehiago izan zen, aurkaria 4-0 egurtuz.

Hurrengo jardunaldian Urkik eta Eibartarrak-ek neurtuko dituzte indarrak Unben, Gazteak-ek Soraluze liderra bisitatuko du eta Eibartarrak B-k Bergara B hartuko du. Bost jardunaldi geratzen dira jokatzeko diharduten lehenengo fase hori amaitzeko.



A B E N D U A


		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

U R T A R R I L A

				1	2
3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31	

O T S A I L A

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28						




2 0 1 1 k o
n e g l u k o
k u l t u r
e s k a i n t z a
...eta kitto! Euskara Elkarte

Egin zaitez
...eta kitto!ko
bazkide!



Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairuartera
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com
www.etakitto.com




Hierros Anetxeok ez diote neurrik hartu mailari

HORI ONDORIOZTATU DEZAKEGU DENBORALDI HASIERAKO lau jardunaldi jokatu ondoren. Lautik hiru porrot jaso ditugure herriko senior mailako taldeak eta oraingoan kanpoan ere ezin izan du irabaz (19-11 galdu zuten Txema Isasaren mutilek

Ordizian, AMPOrekin); horrez gain, sailkapenean ere atzera egin dute nabarmen eta, sei punturekin, sailkapeneko atzeko aldean daude. Santanderreko Independientek 12 puntu ateratzen dizkie, Zarautzek 11 eta Krafft Atco. SS-ek eta AMPO Ordiziak zazpina.

Herri-kiroletako I. Eskoletako Olinpiadak El Corte Inglés-ean



ORAIN ARTE EL CORTE INGLÉS-EAN EGON DEN ERAKUSKETAREKIN AMAITZEKO, bihar arratsaldean, 16.00etatik 19.00etara, Eibarko Ikastetxeetako I. Olinpiadak jokatu dira Ego-Gain kaleko El Corte Inglés-aren sarrerako plazan. Debararrenako ikastetxeetako 9 eta 16 urteen arteko neska-mutilek hartuko dute parte, gutxira 250 bat gutxi gorabehera, taldeka eta ikastetxearen izenean. Ingudea, loktx-biltzea, txingak eta sokatira izango dira modalitateak eta lau sari izango dira, eski estazioetan gozatzeko.

Infantil mailako lau eibartar Euskadiko waterpolo selekziara

URBAT-URKOTRONIK WATERPOLO ESKOLA MARTXAN IPINI ZELA HILABETE BI betetzen direnean, Euskal federazioak infantil mailako taldeko lau jokalariditu selekzioan jokatzeko. 1997an jaiotako Alex Sarasua eta Mikel Sánchez eta 1998an jaiotako Mikel Recio eta Iker García dira Urbateko ordezkariak. Orbea kiroldegian dute basea waterpolo taldekoek eta alebin, infantil eta kadete mailako taldeetan parte hartzeko aukera zabalik dago interesatu guztientzat, Daviderengatik galdetuta. Entrenamenduak martitzen, eguen eta barixakuetan egiten dituzte, 17.30etatik 18.30etara.



Denetarik Gipuzkoako xake txapelketan

AURREKO ASTEBURUAN GIPUZKOAKO XAKE TXAPELKETA-KO BOSGARREN JARDUNALDIA jokatu zen Azkoitiko Elkargunean eta, Jon Aranak irabazi bazuen ere, Haritz Garrok berdinketa onartu zuen eta Julenek amore eman behar izan zuen. Hurrengo txandan honako partidak jokatu dituzte Eibarko Klub Deportibokoek: Haritz Garro vs Egoitz Irure (Kakute), Jon Arana vs Nabar Tejedor (Marlaxka), Julen Garro vs Siu Hung Tung (Gros) eta Edu Olabe vs Aritz Izagirre (Mundarro).




ABENDUA

ABENDUAK 3, barixakua

Euskararen Eguna: "EIBAR, KANTU KANTARI, euskal kanten kalejira". Euskal kantuak abestuko dira egun osoan, 11.30etan hasita Untzagan. Arratsaldean kalejira Toribio Etxebarria kalean. Iluntzean txorixo-egosi pintxoak banatuko dira Untzagan.

ABENDUAK 11, zapatua

Pirritx eta Porrotx pailazoan "Ongi etorri Pupu eta Lore!" emanaldia. 16.30etan eta 19.00etan Unibertsitate Laboralean.



Sarrerak bazkideentzako salgai azaroaren 26ra arte. 27tik aurrera ohiko salmenta tokietan (6,50€ bazkideak, 7€ bazkide ez direnak).

ABENDUAK 12, domeka

Pirritx eta Porrotx pailazoan "Ongi etorri Pupu eta Lore!" emanaldia. 16.00etan eta 18.30etan Unibertsitate Laboralean.

Sarrerak bazkideentzako salgai azaroaren 26ra arte. 27tik aurrera ohiko salmenta tokietan (6,50€ bazkideak, 7€ bazkide ez direnak).

ABENDUAK 14, martitena

Harixa Emoten literatura tailerra. Lander Garro idazlearen "Kontrarioa" liburuaren inguruko tertulia, Antxon Narbaizaren eskutik. 19.00etan ...eta kitto!-n (Urkizu 11, solairuartea).

ABENDUAK 31, barixakua

Kirolkitto! Sari banaketa. Portaleko areto nagusian. 12.00etan.

URTARRILA

URTARRILAK 1, zapatua

Urko igoera, ...eta kitto! Euskara Elkartea eta Klub Deportiboaren eskutik. Hamaiketakoia Ixuan.

URTARRILAREN 11-TIK 21-ERA

Makrobiotika ikastaroan izena emateko epea (...eta kitto!-n, 943200918). 10€ (...eta kitto!-ko bazkide eta berbalagunentzat doan).

URTARRILAK 25 eta 27,

martitzen eta eguena Makrobiotika ikastaroa, Simone Begiristainen eskutik. Arratsaldeko 19.00etatik aurrera Portaleko sukaldean.



OTSAILA

OTSAILAK 1 eta 3,

martitzen eta eguena Makrobiotika ikastaroa, Simone Begiristainen eskutik, 19.00etatik aurrera Portaleko sukaldean.

OTSAILAREN 3-TIK 15-ERA

Ileapaindegi ikastaroan izena emateko epea (...eta kitto!-n, 943200918). 10€ (...eta kitto!-ko bazkide eta berbalagunentzat doan).

OTSAILAK 22 eta 24,

martitzen eta eguena Ileapaindegi ikastaroa. Arratsaldeko 19.00etan, ...eta kitto!-n.

...eta horrez gain:

- Barixakua ...eta kitto! astekaria
- Hilero Txikitto! aldizkaria on-line
- Berbetan mintzapraktika taldeak
- Itzulpenak eta diseinu lanak
- www.etakitto.com

Judoaren egun handia San Andres torneoan

ZAPATUAN JOKATU ZEN IPURUA KIROLDEGIAN JU-DO TORNEO HORRETAKO EDIZIO BERRIA eta, 24 talde ordezkatzeko, 450 bat judoka izan ziren parte hartzen. Lau ordutik gora iraun zuen torneoan, Kalamuako ordezkarietako klubeko sailkapeneko 2. postuarekin egin ziren, urrezko 11 domina, zilarrezko sei eta brontzezko bostekin.

Ekitaldia hasi aurretik, gainera, omenaldia egin zitzaizen Euskal herriko maila handiko judokei: horrela,

Oihana Blanco munduko bigarrena, Maider Palavecino Europako hirugarrena, Ana Llantero Espainiako lehena eta kadete mailako munduilean jardundakoa, Alba López lehena estatuko rankingean eta Europako txapelketan jardundakoa, Ana Comontes Espainiako txapeliduna hainbat aldiz eta Nekane Muguruza Espainiako txapeliduna izan ziren sariak jasotzen. Banatzen, bestalde, Ana Rodríguez, Oscar Muriillo eta Manu Agirre.



Imanol Ortiz de Zarate boxealari-ohia hil da

HILAREN 3AN HIL ZEN, 89 URTEREKIN, IMANOL ORTÍZ DE ZARATE EIBARRA, gerra osteko sasoieta hainbat boxeoko burrukaldietan parte hartutakoa. Gure herrian oihartzun handia izan zuen Enrike Astarloa "Ermuko zezena- ren" aurka debutatu zuen; jaialdi hartan izan ziren Pako Bueno eta Llorente izen handiko boxealariak ere izan ziren eta

Imanolek 2. asalto erdirako bota zuen 115 kilo inguruko aurkaria. Handik ez askora Gipuzkoako txapela eskuratu zuen Grosen, berarengan inork gutxi sinesten zuenean. Dena dela, ibilbide laburra egin zuen boxeoa Ziriako Ortíz de Zarate herri-kirolean esatari lanetan hainbat urtean diharduenaren anaiak, berak zioen moduan, "inuzentetuta geratu aurretik".

Teknikazio jardunaldia eskubaloian




DOMEKA GOIZEAN EGINGO DA IPURUA KIROLDEGIAN eskubaloi arloan Gipuzkoako Federazioak antolatutako teknikazio jardunaldia. Bertan har dezakete parte 1999an jaiotako mutilek, hau da, 2. urteko alebinek. Jardunaldia goizeko 10.00etan hasiko eta handik ordu eta erdira, 11.30etan, amaituko da.

109 eibartar Behobia-Donostian

DOMEKA GOIZEAN JOKATU-TAKO BEHOBIA-DONOSTIA MARATOI ERDIAN gure herriko 109 atleta izan ziren parte hartzen: 96 gizonezko eta 13 emakume. Izen-emandakoak 20.655 izan ziren guztira: 20.504 oinezko, 128 patinatzaile eta 23 aulkietan; hala ere, eguraldia zela-eta, hiru mila lagunetik gora ez ziren irteera puntuan aurkeztu. Hori bai, irrendako 17.437 atletetik, 17.373 helmugaratu ziren epe

barruan: horrek adierazten du jendeak oso ondo prestatzen duela maratoi erdi hori. Hona-koak dira eibartarren postuak eta denborak, helmugara sartu ziren ordenari jarraituz:



521	Eduardo Talán	1:17:11	8.482	Oier Cobo	1:38:27
1.126	Haritz Uria	1:20:27	8.968	Josu Guridi	1:39:22
1.261	Jon Cid	1:21:07	9.093	Txema Morán	1:39:35
1.413	Asier Silva	1:21:58	9.493	Javier Larrabeiti	1:40:31
1.563	Eneko Laskurain	1:22:34	9.624	Ricardo Bastida	1:40:47
1.672	Igor Errasti	1:22:57	9.923	Jon Gorosabel	1:41:22
1.763	Iosu Murua	1:23:15	9.949	Enrike Albistegi	1:41:26
1.826	Iñigo Trokaola	1:23:26	9.950	Ana Iparragirre	1:41:26
1.891	Mikel Beristain	1:23:42	10.351	Iñigo Astigarraga	1:42:16
1.959	Eduardo Uribe	1:23:55	10.538	Eduardo Kapelastegi	1:42:40
2.043	Asier San Martín	1:24:10	10.604	Jose Ignacio Telleria	1:42:48
2.431	Josemi Da Silva	1:25:24	10.665	Aitor Muguruza	1:42:58
2.575	Aitor Bolinaga	1:25:49	10.667	Rafael Martínez	1:42:59
2.708	Mikel Sologaitua	1:26:14	10.855	Javier Unamuno	1:43:24
2.736	Iñaki L. de Gereñu	1:26:18	10.958	Enrique Martín	1:43:39
3.097	Aimar Arakistain	1:27:17	11.199	Jon Kortabitarte	1:44:15
3.167	Xabi Bastida	1:27:28	11.208	Itoiz Martínez	1:44:16
3.234	Fermin Sebastian	1:27:35	11.222	Eider Mujika	1:44:18
3.460	Josu Zinkunegi	1:28:05	11.724	Oskar Alberdi	1:45:30
3.485	Xabier Arrieta	1:28:09	11.726	Luis De Blas	1:45:30
3.491	Imanol Abad	1:28:10	11.899	Ainhoa San Martín	1:45:54
3.590	Igor Gómez	1:28:20	12.057	Eneko Urain	1:46:17
3.900	Asier Arana	1:29:01	12.080	Aitor Oiarzabal	1:46:21
4.034	Jose Nieto	1:29:14	12.181	Haritz Arriaga	1:46:37
4.055	Daniel Iglesias	1:29:16	12.280	Amaia Abanzabalegi	1:46:52
4.105	Asier Barberena	1:29:22	12.439	Andres Mazkianan	1:47:15
4.301	Juanjo Larramendi	1:29:47	12.651	Naiara Cid	1:47:46
4.508	Raul Fernández	1:30:14	12.661	Juan Luis Iriondo	1:47:48
4.725	Ignacio Garai	1:30:43	12.810	Adrian Galán	1:48:09
4.987	Ibon Martín	1:31:16	13.060	Alexander Zubizarreta	1:48:49
5.030	Alexander Telleria	1:31:21	13.281	Nerea Urtiaga	1:49:26
5.212	Aitziber Urkiola	1:31:46	13.283	Fidel Díez	1:49:26
5.405	Alberto Bravo	1:32:07	13.521	Iñaki Ferreiro	1:50:16
5.616	Tomas Axpe	1:32:33	14.109	C.J. Pérez de Obanos	1:52:18
6.051	German Amuategi	1:33:36	14.110	Susana Martínez	1:52:18
6.275	Javier Ziaran	1:34:03	14.148	Juan Galarza	1:52:26
6.279	Ane Ziaran	1:34:04	14.233	Javier Arriola	1:52:40
6.410	Ana Ramírez	1:34:21	14.313	Jorge Pérez	1:52:56
6.411	J. Antonio Cañaveras	1:34:21	14.343	Emilio Bastida	1:53:03
6.727	Alberto S. de Biteri	1:34:57	14.965	Angel Leiaristi	1:55:21
6.921	Josu Egaña	1:35:20	14.966	Ibon Larrañaga	1:55:21
7.035	Unai Agirre	1:35:34	14.969	Adolfo Málaga	1:55:22
7.196	Alberto Arakistain	1:35:52	15.170	Gaizka Aranzabal	1:56:29
7.268	Jon Mikel Mujika	1:36:00	15.200	Ibon Muñoa	1:56:41
7.619	Ernesto Etxabe	1:36:44	15.287	Nerea Oteiza	1:57:06
7.620	Jon Etxabe	1:36:44	15.453	Braulio Villalon	1:57:49
7.637	Iker Aristondo	1:36:46	15.473	Arkaitz Mujika	1:57:56
7.742	Juan Jose Jurado	1:37:00	15.479	Eugenio Morillo	1:57:59
7.764	Aitor Zubizarreta	1:37:03	15.607	Carlos Balseiro	1:58:38
7.961	Sergio Alegre	1:37:27	15.826	Luis Etxeberria	1:59:51
8.051	Eduardo Burdell	1:37:37	15.840	Garazi Garro	1:59:57
8.059	Julen Goenaga	1:37:38	16.369	Jorge Sáenz	2:04:00
8.281	Gorka Gallastegi	1:38:06	16.411	Eduardo Oiarzun	2:04:21
8.322	Miren Gallastegi	1:38:09	17.229	Iker Etxeberria	2:20:57
8.382	Aitor Zubizarreta	1:38:16			




Jose Luis Korta Illunabarrian kontu-kontari

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATZEN DUEN ILLUNABARRIAN PROGRAMAREN BARRUAN, JOSE LUIS KORTA IZAN ZEN EIBARREN eguztenezan, ...eta kitto!-ren egoitzan. Urko Aristi kazetariak gidatutako hitzaldian, hainbat gai izan zituen hizpide Kaikuko entrenatzaileak. Traineren inguruan dagoen "joko zikina" salatu zuen beste behin ere oriotarrak, kirolari asko "dopatu egiten dela", eta horren aurrean ez dela isilik geldituko azpimarratu zuen

Kortak. Horrez gainera, ETB-2ko "El conquistador del fin del mundo" saioaren inguruan ere jardun zuen. Etorri berri zen saioaren grabaziotik, eta aurtengoa ere oso gogorra izan dela nabarmendu zuen Kortak. Hotz izugarria jasan dutela, zero azpitik 10 gradu, eta gosearekin ere larri ibili direla. Jakinminaz gelditu zen bat baino gehiago, baina saioa oraindik emititu ez denez, ezin izan zuen detaile askorik eskaini. Telebistan ikusi beharko han gertatutakoaren nondik norakoak.




Jose Luis Kortak erraz heldu zizkien eztabaidatzeko gai guztiei eta behin baino gehiagotan bai sutsu erantzun ere. / SILBIA HERNANDEZ



Hip-hop eta jazza bihar gauean Elgetako Espaloian

BIHAR ZAPATUA, 22.30-ETATIK AURRERA HIP-HOP ETA JAZZAREN TRADIZIOAN OINARRITUTAKO IKUSKIZUN MUSIKALA ikusteko aukera egongo da Elgetako Espaloian, Kase.O (Violadores del Verso) abeslari eta inprobisatzailearen lirikaren eskutik. Biharkoa izango da Euskal Herriaren eskainiko duten kontzertu bakarra eta Errabal jaialdi ibiltariari esker ailegatuko zaigu

etxe aldameneraino. Violadores del Verso, azken hamarkadan Espainiako hip-hop talde esanguratsuena izan den taldeko liderrak goi mailako musikariak izango ditu aldamenean, besteak beste Daniel Comas "Groove Station" taldeko gitarra jotzailea. Sarrerak interneten salgai daude (15 euro) eta bestela bihar lehiatilan erosteko aukera egongo da (18 euro).



Santamaria dantza konpainia Coliseoan

JUAN CARLOS SANTAMARIAK ZUZENTZEN DUEN SANTAMARIA DE DANZA KONPAINIAK EMANALDIA ESKAINIKO DU Eibarko Coliseo antzokian azaroaren 26an, 20.30etan. Eibarren eskainiko den "programa mixtoa" izango da eta, besteak beste, "Aire de Corte" piezare-

kin biribilduko dute. Santamaria koreografo donostiarrak Espainiako Dantza Sorkuntza Saria jaso zuen 2008an eta berak sortutako koreografia garaikide bik osatzen dute ordubete pasatxoko iraupena duen ikuskizuna. Sarrerak ohiko bideei jarraituta eros daitezke, 7 eurotan.

San Andres bertso jaialdia datorren barixakuan

AZAROAREN 26-AN, SANANDRES JAIEN EGITARRAUAN BARRUAN, ANTO-LATUKO DU AURTEN ERE

...eta kitto! Euskara Elkarteak San Andres Bertso jaialdia. Gaueko 22.00etan izango da, aurreko urteetan baino ordu erdi lehenago, Portaleko areto nagusian. Aurten bertsolari hauek jardungo dute nor baino nor: Julen Zelaieta, Ane Labaka, Julen Sololuze, Jokin Labaien,



Julen Zelaieta aurten ere izango da Portalean. / MAIALEN BELAUSTEGI

Eneritz Zabaleta eta Ainhoa Agirreazaldegi. Jaialdia hasi aurretik, San Andres bertso paper lehiaketako sariak banatuko dira. Aurtengo irabazleak hauetxek izan dira: LH mailan 1go saria Juan Antonio Mogel ikastolako Mikel Rodriguez-entzat izan da, eta bigarrena, ikastetxe bereko Irati Larruskainen-tzat. DBH mailan ez da aur-

ten lanik aurkeztu. 16 urtetik gorakoen mailan, irabazlea Oretetako Aitor Albistur izan da, eta bigarrena, berriz, Jesus Mari Gisasola "Trunboi" eibartarra. Irabazleek San Andres bertso jaialdian abestuko dituzte euren bertso sarituak. Jaialdirako sarrierak gaur jarri dira salgai 5 eurotan Sagar Bitza, Depor eta Kultu tabernetan.



Sakoneta, ekainerako irudia

KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI-LARITZA BATZORDEKO JOSE VILAK DIARIO VASCO-K ANTOLATUTAKO argazki lehiaketan 3.saria irabazi du, aldamenen ikusten duzuen argazkiarekin. Sakonetan atera zuen erretratua 2011rako kaleratuko den egutegian "ekaina" hilabetearen irudi gisa ipintzen ikusteko aukera izango dugu laster.



Ainhoa Agirreazaldegi.

Santa Zezilia omentzeko serenata bihar gauerdian

ZAPATU GAUERDIAN, UNTZAGATIK HASITA ETA OHIKO IBILBIDEARI JARRAITUTA, "QUINTO LEVANTA" MELODIA EZAGUNAREN eta beste habanera batzuen erritmora ibiliko dira Cielito Musika Bandakoak, eurekin bat egitera animatzen diren herritarrekin batera. Horrela, serenatarekin ospatuko dute, urteroko moduan, musikari babeslea den Santa Zezilia.

Biharamonean, 11.00etan hasiko den kalejirarekin gogoratuko dute Santa Zezilia Usartza Txistulari Taldekoek eta piskat geroago, 12.30etan Cielito Musika Bandak kontzertua eskainiko du, Coliseoan. Egun berezia izanda, taldera gerturatu diren aurpegi berriak ezagutzera emateko une aproposa ere bada: Bandarekin bat egitera animatu diren kiderik berrienak hauek dira: Marisa Ga-

ray (Gasteizko perkusionista, hainbat kontzertutan jardun du aurretik ere); Gorka Salgado (Debako klarinetista); Ainhoa Urkizu (Gasteizko klarinetista, 2009az geroztik Musika Bandan dihardu laguntzen eta, horrez gain, Usartza Txistulari Taldeko kide izatera pasatu da orain dela gutxi, txistuarekin); eta hainbat urtetan taldea lagata izan duen Andoni Martín tronpetistak berriz ere bandara bueltatzea erabaki du.

Bestalde, Santa Zezilia kontzertua Cielitoko hainbat kideri agur-omenaldia eskaintzeko aprobetxatuko dute: taldean 50 urtetik gora daramaten Rogelio Pérez klarinetista eta



Ramón Esandi saxofonista bereziki gogoan izango dituzte, orain dela urtebete zuzendari izatera pasatu zen Carlos Sánchez-Barbarekin, Iñaki Orbegozo zuzendariordearekin eta oraingoaren aurretik Cielito Musika Bandaren zuzendaria izan zen Jorge Molinarekin batera.

TXOMIN ALEGRÍA BUENO

(2010eko azaroaren 16an hil zen, 61 urterekin)

**URAK DAKARRENA URAK DAROA
ZUK EMANDAKOA GUREKIN GERATZEN DA**

Senideen izenean, eskerrik asko hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.



laburrak

PIRRITX ETA PORROTXEN SARRERAK

Abenduaren 11n (zapatuan, 16.30etan eta 19.00etan) eta abenduaren 12an (domekan, 16.00etan eta 18.30etan) Pirritx, Porrotx eta Marimotots Hezkuntza Esparruan egongo dira "Ongi etorri... Pupu eta Lore" ikuskizun berria aurkezten. Bazkideentzako aurre-salmentak hurrengo astean ere jarraituko du, hilaren 26ra arte. Bazkide bakoitzak gehienez hiru sarrera erosteko aukera izango du (6'5 euro), ...eta kitto! Euskara Elkartearen bulegora joanda (Urkizu, 11 - solairuartea).

M^a CARMEN PIRIZ-EN MARGOLANAK

Untzagako jubilatu etxean ikus daitezke M^a Carmen Piriz artistaren margolanak, domekara arte martxan egongo den erakusketan. Gaur aratsaldean 19.15etatik 21.15etara egongo da zabalik eta bihar eta etzi 12.00etatik 14.00etara eta 19.15etatik 21.15etara.

Ijitoei buruzko gida argitaratu dute

AZAROAK 16 IJITO HERRIAREN EGUNA IZAN ZEN ETA, HORREN HARIRA, JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAK, Irungo liburutegiarekin batera, herrialde eta kultura ezberdinen arteko elkar ezagutza eta tolerantzia helburu duen "Liburutegiak Topaleku" ekimenari jarraituz, haur literaturari buruzko gida berezia eman du argitara, "gazteenei gurekin batera bizi den herri bati buruzko ezagutza handitzeko aukera emango dien hainbat izenburu bertan bilduta". Gida horren ale batzuk egunotan herriko ikastetxeetan banatu dituzte eta, horrez gain, liburutegian eskuratzeko aukera ere badago. Internetarako bertsioa liburutegiaren webgunean aurkituko duzue



XX

ezaugarri erepreparata, ipuin kontalaria zein ipuin kontatu aukeraten joango da

Eta liburutegian antolatutakoekin jarraituz, egun gutxi barru egitekoa zen Making ikastaroa bertan behera laga behar izan dute, jendeak izenik eman ez duelako. Hala ere, abenduaren 11 eta 12rako aurreikusitako komiki digitalaren inguruko ikastaroan izena-emateko aukera egongo da oraindik ere abenduaren 9ra arte.

Bihar kontu kontari

Bestalde, bihar aho-tradizioari lotutako hainbat ipuin eskainiko dituzte umeen liburutegian, 18.00etatik aurrera "Kontu kontari" izenburari jarraituta. Ordubete inguruko iraupena izango duen saioa 4-10 urte bitarteko umeentzat pentsatuta dago eta, ipuina entzutera bildutako umeen

Asier Errasti lehiaketako irabazleak bihar ezagutuko dira

PLANO CORTO ELKARTEKOEK ANTOLATZEN DUTEN ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIA AZKEN TXANPAN SARTU DA. Astelehenaz geroztik lehiaketako finalistek lanak proiektatzeko dihardue egunero, 19.45etatik aurrera Portalean.



Aurten 9 urte bete dituen lehiaketara inoiz baino lan gehiago aurkeztu dira, 300 in-

guru, eta antolatzaileek horiek guztiak ikusi eta sailkatzen nahikoa lan egin behar izan dute, horien artean onenak aukeratu eta aste honetako proiektzioak prestatu ahal izateko. Finalista izateko 32 laburmetraia aukeratu dituzte, hain zuzen ere egunotan erakusten diharduten lanak. Horietako batzuk bihar Portalean egingo den jaialdian saria eramango dute.

Gastronomia nagusi Kultuko sanandresetan

AZKEN URTEOTAKO MARTXARI JARRAITUTA, ARRATE KULTUR ELKARTEAK SUKALDARITZARI LOTUTAKO EKITALDI BI antolatu ditu: batetik, eguaztenean (hilak 24) makrobiotikaren inguruko hitzaldia eta dastaketa egingo dira elkartearen egoitzan bertan (Zuloagarren, 3), 19.30etan hasita. Simone Begiristainen jardungo du lehenengo, makrobiotika zer den eta bes-telako azalpenak ematen. Jarraian, Oskar Trebiño sukaldariak lagunduta, elikadura modu horri jarraituta hainbat jaki

prestatuko dituzte eta, horrela, jendeak zuzen-zuzenean ezagutu ahal izango du gero eta jarraitzaile gehiago duen jateko modu hau.

27 taberna pintxo lehiaketarako

Eta hurrengo egunean, azaroaren 25ean, Eibarko pintxo onena aukeratzeko tabernarik taberna ibiliko dira Arrate Kultur Elkartearen VII. Pintxo Lehiaketa San Andres Saria-ko epaimahaiko kideak. Arrate Kultur Elkarteak, Udalaren eta herriko ostalarien laguntzare-


kin antolatutako lehiaketa herriko taberna guztiek har dezakete parte, aldez aurretik izena-emanda, eta antolatzaileek eurek helarazi diguten zerrendari jarraituta aurten inoiz baino parte-hartze handiagoa izango da, 27 tabernak izena eman dute eta: Aguiñaspi, Iturri, Trinkete, Aterpe, Anardi, Tas-Tas, Ambigú, Ego-gain, Kultu, Depor, Birgiñape, Hodei, Bost, Bossa, Batzoki, La Terraza, Txaltxa, Gurbil, Txoko, Oishi, Koskor, Kalton, Living-Cafe, Maixa, Leo, Etxola eta Foxtter tabernetakoek buruari buelta



batzuk eman beharko dizkiete, datorren astean pintxo berri-tzaile eta erakargarrien batekin lehiaketako saria eskuratu nahi izanez gero.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, ANGELA Pérez, atzo urte bi egin zenduazelako. Famelixa guztiaren eta, batez be, ANDER-en partez.




Zorionak, IZARO, hillaren 11n urte bi egin dozuzelako. Laztan haundi bat famelixaren partez eta jarraitu haiñ alai.



Zorionak, LUAR Olabegogeaskoetxea Azpiazu, gaur urte bi betetzen dozuz-eta. Aitxitxen eta amamen partez.



Zorionak, NAGORE Arakistain Mendizabal, hillaren 16xan lau urte bete zenduazelako. Eibarko eta Zumaialko famelixen partez.



Zorionak, ENEKO, aurreko zapatuan urte bi egin zenduazelako. Patxo pilla bat Aretx eta famelixaren partez.



Ongi etorri, IKER Agote Sánchez, hillaren 2xan etorri zihan-eta gure artera. Bere guraso eta famelixa guztiaren partez.

JAIOTAKOAK

- Ander Azurmendi Márquez. 2010-XI-9.
- Uxue Suárez Iriondo. 2010-XI-9.
- Oihan Bastida Chinchilla. 2010-XI-9.
- Nora Arakistain Ormaetxea. 2010-XI-10.
- Yasser Adouzi. 2010-XI-11.
- Danel Luque Colmenero. 2010-XI-12.
- Ekhi Uriguen Vicente. 2010-XI-12.
- Adriana Mtnez. de Musitu Mata. 2010-XI-13.
- Aizea Barrutia Zabala. 2010-XI-13.

HILDAKOAK


- Jose Luis Bergara Díaz. 82 urte. 2010-XI-12.
- Juanita Rico Sáez. 89 urte. 2010-XI-12.
- Antonio Corbillón Pérez. 66 urte. 2010-XI-13.
- Jose Armentia Rguez. de Yurre. 78 urte. 2010-XI-13.
- Asier Fuldain Zabala. 88 urte. 2010-XI-13.
- Herminia Mora Félix. 75 urte. 2010-XI-14.
- Cristina Uriarte Argiano. 41 urte. 2010-XI-15.
- Pilar Roteta Larrañaga. 73 urte. 2010-XI-16.
- Txomin Alegria Bueno. 61 urte. 2010-XI-16.

zinea Coliseoan

19an: 22.30
20an: 17.00/19.45/22.30
21ean: 17.00/20.00
22an: 20.30

"Amador"

Zuzendaria: F. León Aranoa
Aktoreak: Celso Bugallo, Magaly Solier, Fany de Castro, Manolo Solo




Marcela diruz larri dabilen gaztea da, udan adinean sartutako Amador zaintzen lana aurkituko duena. Baina Amador berehala hil egingo da eta Marcela egoera zailean geratuko da. Arazo moralaren aurrean aurkituko da orduan Marcela aurrera egiteko...

19an: 22.30
20an: 17.00/19.45/22.30
21ean: 17.00/20.00
22an: 20.30

"Héroes"

Zuzendaria: Pau Freixas
Aktoreak: Nerea Camacho, Lluís Homar, Emma Suárez, Hector Claramunt




Hogeita hamar urte inguruko publizista arrakastatsu batek erlojuz kontrako lasterketa egin behar du bilera garrantzitsu batera heltzeko. Bidaian neska bat ezagutuko du eta, oso ezberdinak izan arren, haurtzarora gogoratzuz elkarrekin konektatuko dute.

19an: 22.30
20an: 17.00/19.45/22.30
21ean: 17.00/20.00
22an: 20.30

"Harry Potter y las reliquias"

Zuzendaria: David Yates
Aktoreak: Daniel Radcliffe, Rupert Grint, Emma Watson, Rhys Ifans



"Harry Potter eta printzearen misterioa"-ren jarraipena da, aspalditik espero zen Harry Potter eta bere aldekoen eta Lord Voldemort azti iluna eta honen zerbitzari Mortifagoen arteko liskarrarekin amaituko dena. Alde iluna gero eta indartsuago dago...

Ego-lbar zine-kluba

25ean: 17.30/21.00

"Mammoth"

Zuzendaria: L. Moodysson
Pertsonaiak: Michelle Williams, Gael G^o Bernal, Th. McCarthy, M. Necesito



Leo goraldian dagoen web orrialde bateko sortzailea da, diruaren munduan mugitu beharra daukana. Ellen larrialdietan diharduen zirujaua da. Zortzi urteko haurrak denborarik gehiena bere zaintzaile filipinarrarekin pasatzea eragiten dute gurasoen lanek.

horoskopoa

ARIES

Aspertuta zaude asteburuero gauza bera egiten ezta? Behingoagatik proposatu zuk zeozer eta, bestela, ez zaitze kezatu. Ixilik egon!

TAURUS

Ezin dira gauzak erdizka esan, eta zuk badakizu. Argi eta garbi berba egizu gatazklak sortu nahi ez badituzu. Hobeto joango zaizut!

GEMINI

Gogoratu ezin duzula beti zuk nahi duzuna egin eta besteen iritzia ere kontutan hartu behar dituzula. Entzuten ikasi behar duzu.

CANCER

Osanun arazo txikiak izango dituzu aste honetan, baina ezer laririk ez. Hala ere, zaintzea gomendatzen dizut, ondorioengatik batez ere

LEO

Dagoeneko ez zaude persona horrekin maiteminduta, ezta? Ez laga denbora pasatzen, biontzat mingarriagoa izango da-eta.

VIRGO

Ura edatea ona dela entzun duzu eta egun osua emoten dozu ura eraten eta komunian noski. Dena neurrian, Virgo, neurrian.

LIBRA

Kritikak onartzen ikasi behar duzu: gehienetan ez dituzu ondo hartzen eta sarritan hobebarezez dira egiten dizkizutenak. Kontuan izan!

SCORPIUS

Ezuste bereriko astea izango da hau. Baina, lasai, denak onak izango dira eta une zoragarriak biziko dituzu lagunekin.

SAGITTARIUS

Luzaroan zain egon eta gero, domekan horrenbeste desiatzen egon zarena lortuko duzu. Ahal duzun beste gozatu momentuaz.

CAPRICORNIUS

Asteburuan primeran pasatuko duzu: aspaldiko lagunekin elkartu eta barre asko egingo duzue txikitako gauzak oroitzen.

AQUARIUS

Ez sinistu kalean entzuten duzun guztia: gehienetan txutxumutxuek ez dute ganorazko ezer atzean. Kritikoagoa izaten saiatu.

PISCIS

Batzuetan gauzak ez dira espero genuen moduan irtetzen eta alperrikoa izaten da errudunak topatzen ibiltzea. Hartu lasai!

Barixakua 19

MODA DESFILEA

XX.XX.- Moda desfilea, Corral (gizonezkoen moda) eta El Corte Inglés (emakumezkoen moda) dendek lagatako jantziekin. Untzagako jubilatuaren etxean.

PEDRO ZELAIA MEMORIALA

19.30.- Pedro Zelaia Memorialaren tonbola. Ibarkurutzeko plaza pareko lokalean.

MUNDUKO PAISAIK

18.30.- Boliviari buruzko mahai-ingurua. Juan San Martin Liburutegian.

ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIA

19.45.- Asier Errasti Laburmetraia jaialdiko proiektioak. Sarrera doan. Portalean.

DANBAKA

22.30.- Doctors Klub (Abadiño-Durango), Rombos Negros (Bergara), Karpovian Project (Mutriku) eta Ez! (Oñati). Espaloia kafe antzokian (Elgetan).

Zapatua 20

ESKOLARTEKO OLINPIADAK

16.00.- Herri-kirolen inguruko eskolarteko I. Olinpiadak, El Corte Inglés-ek antolatuta. Merkataritza gunera sartzeko plazan (Ego Gain kalean).

TAILERRA

17.00.- Txapak egiten ikasteko tailerra. Errota gaztelekuan.

KONTU KONTARI

18.00.- Ahozko tradizioko zenbait ipuin, 4-10 urte bitarteko haurrentzat (50 bat minutuko iraupena). Umeen Liburutegian.

ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIA

20.00.- Asier Errasti Laburmetraia jaialdiko lan irabazleei saria banatzea. Sarrera doan. Portalean.

KONTZERTUA

22.30.- Kase.O Jazz Magnetism (Violadores del Verso). Espaloia kafe antzokian (Elgetan).

SANTA ZEZILIA SERENATA

00.00.- Untzagatik abiatuta, Cielito Musika Bandarekin ohiko kalejira, "Quinto Levanta" eta habaneren erritmora.

Domeka 21

PINTURA LEHIAKETA

09.00-11.00.- XXXIII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa. Parte-hartzaileei mihiseak eta paperak zigilatuko dizkiete (Portalean, Museoa). **14.00etat** arako lanak entregatu beharko dituzte.

BAKAILAO LEHIAKETA

11.00.- Eskolarteko VII. Bakailao Lehiaketa. Untzagan.

SANTA ZEZILIA KALEJIRA

11.00.- Usartza Txistulari Bandaren Santa Zezilia kalejira.

SANTA ZEZILIA KONTZERTUA

12.30.- Cielito Musika Bandaren kontzertua: "Sangre de artista" (pasodoblea, J. Texidor), "Aires Vascos nº1" (rapsodia, J. Franco), "Star Wars saga" (soinu banda, J. Williams), "La rosa del azafrán" (zarzuela, J. Guerrero) eta "A medio tiempo" (Medley, C. Sánchez-Barbak moldatua). Zuzendaria: Carlos Sánchez-Barba. Coliseoan.

TAILERRA

17.00.- Txapak egiten ikasteko tailerra. Errota gaztelekuan.

Martitzena 23

IKASTEN

10.00.- "Inteligencia emocional", Adindu-ren eskutik. Armeria Eskolan.

Eguaztena 24

IKASTEN

10.00.- "Seis renombrados personajes vascos". Armeria Eskolan.

HITZALDI DASTAKETA

19.30.- Makrobiotika. Hizlaria: Simone Begiristain. Sukaldaria: Oskar Trebiño. Arrate Kultur Elkartearen.

Eguena 25

IKASTEN

10.00.- Mendi-ibilaldia, Zumaia-Zarautzera (trenez). Estaziño kalean 10.00etan eta Ardantzan 10.05etan.

SAN ANDRES AZOKA

11.00.- San Andres azoka, Sansaburu eta Argatxa ikastetxeetan.

ZINE KLUBA


17.30/21.00.- "Mamut" (Zuz: Lukas Moodysson). Sarrera: euro bi. Hezkuntza Esparruan.

HITZALDIA

18.00.- Kinesiologiari buruzko hitzaldi irekia. Adhara zentruan (Elgeta Kale, 2 AC).

SAN ANDRES VII. PINTXO LEHIAKETA

Arratsaldetik gauera.- Herriko tabernarientzat pintxo lehiaketa, onena aukeratzeko.



erakusketak

- Azaroaren 21era arte
INDALEZIO OJANGUREN XXIII. Argazki Lehiaketan saritutako argazki erakusketa. *Portalean.*
M^a CARMEN PIRIZ-en margo abstraktuen erakusketa. *Untzagako Jubilatutxean.*
- Azaroaren 28ra arte
ESTHER GALARZA-ren zeramika lanen erakusketa. *Durangoko Arte eta Historia Museoa.*
- Azaroaren 30era arte
ARGAZKILARITZA IKASTAROA-ren erakusketa. *Portaleko tabernan.*
CARLES VERDÚ I PRATS-en "Vietnam del Norte" argazki-erakusketa. *Klub Deportiboan.*
AGRUPACIÓN FOTOGRÁFICA TALLERS D'ARTS I OFICIS DE BERGA P25-ren argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
HERRI KIROLLEN inguruko erakusketa. *El Corte Inglés-ean.*

ikastaroak

- **Komiki digitalaren inguruko tailerra.**
Informazioa eta izen-ematea: Juan San Martin
Liburutegian, abenduaren 9ra arte.

bekak

- **Elkartasun Bekak.**
Eskakerak: Abenduaren 1era arte, Pegoran.

farmaziak

- 19, barixakua**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
- 20, zapatua**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 21, domeka**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 22, astelehena**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 23, martitzena**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 24, eguaztena**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 25, eguena**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 26, barixakua**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

sarrerak salgai

- DANTZA "Aire de corte":**
Azaroak 26. 20.30etan.
- ANTZERKIA "Tres somos tres":**
Azaroak 27. 17.00etan.
- MUSIKALA "Olentzero & co!:**
Abenduak 4. 17.30etan eta 20.00etan.

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.
- tren ordutegiak**
- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

			3	9	6	4		
	5	6	8					
	8				5			3
	7		4					
1		9			7			4
			9			2		
2		7			3			
				1	2	6		
	6	1	3	8				

DENBORAPASAK

7	2	3	4	1	5	8	6	9
8	6	5	0	7	3	4	1	2
9	4	1	6	2	8	3	7	5
5	7	2	3	4	9	6	8	1
6	1	9	2	8	7	5	3	4
3	8	4	1	5	6	2	0	7
4	9	8	7	3	2	1	5	6
1	5	7	0	6	4	9	2	3
2	3	6	5	8	1	7	4	0

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Legarren. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berriztuta. Bizitzera sartzeko moduan. 23.500.000 pta. Tel. 659-687736.

1.2. Errentan

– Logela behar da konpartitzeko. Tel. 688-819475.
 – Ermuan pisua alokagai. 3 logela. Igogailuarekin. Argitsua. Tel. 661-653160.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo Bergaran. Tel. 663-451436.
 – Logela alokagai. Komun propioarekin eta sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Berogailua. 350 euro. Tel. 605-908924.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Honda Civic autoa salgai. 115cv. 120.000 km. Egoera onian, beti garajian. Extra guztiekin. Tel. 656-416597.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukaldea eta komunarekin. Tel. 669-293427.

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai, 7 metroko trastelekuarekin, San Andres pasealekuan. Tel. 943-120308.
 – Musika talde batek lokala alokatu nahi du. Berdin dio beste batzuekin partekatzea. Tel. 645-722611. Gaizka.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Geriatria laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Prezio onean. Tel. 695-898349.
 – Neska eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 676-035738.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 692-691964.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 608-147559.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 648-603029.
 – Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-127400 edo 629-889465. Miren.
 – Neska eskaintzen da 10.00etatik 17.00etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-910991.
 – Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 678-972690.
 – Neska eskaintzen da lan egiteko arratsaldetan eta asteburuetan. Tel. 636-383471.
 – Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-617818.
 – Edozein motatako leihoak eta pertsianak konpontzen dira. Tel. 670-428966.
 – Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 634-190979.
 – Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia. Tel. 635-187901.
 – Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 669-068439.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 673-875123.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 665-156946. Maria.
 – Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia lan bietan. Tel. 943-175420 eta 696-399510.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxea garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 655-384877.
 – Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 662-471270.
 – Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 667-709438.

4.2. Langile bila

– Kamarera behar da asteburuetarako Eibarko taberna batean. Euskeraz badaki hobeto. Esperientzia-rekin. Tel. 669-977225.
 – Kamarera/o behar da egun erdiz Eibarren. Euskeraz dakiena. Tel. 943-207044.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Magisteritza eta Pedagogia tituludunak LH eta DBHko klase partikularrik ematen ditu, ikaslearen etxera joateko aukerarekin. Tel. 606-257620.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Lur saila salgai. 21.000 m²: 15.000 Maxpen eta 6.000 Kalamuan. 60.000 euro. Negoziagariak. Tel. 965-876118 edo 649-445104.
 – Ibiltzeko zinta salgai. Tolesgarria eta indikadore elektronikoarekin. Egoera onean. 40 euro. Tel. 670-772928. Mikel.
 – Ardotegi edo "vinoteca" berria salgai. Zozketan egokitutakoa. Erabili barik. 32 botilarentzako lekuarekin. Tel. 672-428273.
 – Lababoa salgai, armairua eta ispiluekin. Baita bainuontzi txiki baten manpara. Tel. 628-699910.
 – Sofaohaia salgai. Egoera onean. Gutxi erabilia. 150 euro. Tel. 620-559606.
 – Ordenagailuarentzako egurrezko mahaia salgai, erroberekin eta CPU sartzeko lekuarekin. Tel. 665-749027.
 – Paseorako silla salgai. Jane Nomad markakoa eta urdin marinoa, egoera oneko itsas-zakua eta burbuilarekin. 100 euro. Tel. 620-720953.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Hilaren 15ean eguzkitarako be-taurrekoak aurkitu nituen Erreka-txun. Tel. 690-311429. Pilar.



Klinikan %15eko deskontua inplante tratamenduetan

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisaling" ortodontzi ikusezina
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-PADI)
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziazioa 18 hilabetera arte

www.dentalaldaz.com

• Aldaz Hertz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

San Bartolome, 22 (Elgoibar) / Ola kalea, 10 (Lasarte-Oria)

943 366 377

emankor


ERAGINKORTASUN ENERGETIKO ALTUKO ITXITURAK LEIHOAK-FATXADAK-BEIRATEAK

FABRIKA ETA ERAKUSKETA:
Urtia Industrialdea- C1 pabilioia
ERMUA-BIZKAIA

Tlfnoa: 943 170184
Faxa: 943 170571
e-maila: emankor@euskalnet.net


Leiho isolatzaileak, € € kalitate markadunak

Hauxe da leihoak
aldatzeko unea



Energiaren Euskal
Erakundeak (EVE)
diruz-lagundutako
RENOVE PLANA

Eskatu informazioa
eta aurrekontua



KINESIOLOGIARI BURUZKO INFORMAZIO HITZALDIA

Marijo Waliño Kinesiologia irakasleak emanda

**Zer da Kinesiologia?
Zelan lagundu diezazuke zure helburuak lortzen?**

**Osasunaren Triangelua:
Ongizate fisiko, emozional eta mentalaren bila**

**Estresa eta kinesiologia:
Estresaren faseak
Tentsio Emozionala Askatzeko Teknikak**

**Azaroaren 25ean (eguenan)
18.00etan - SARRERA DOAN -**

KONTSULTA ASTEAN BEHIN




*Puntu y Aparto-ren
aurresan*



adhara
z e n t r o a

ELGETA kalea, 2 - ac adharazentroa@hotmail.com
Tif: 600 792 127 / 600 791 943
943 849 169 / 943 849 129



*Berreskuratu
egizu
zure areka*

AKTIBITATEAK

ARMONY
TAI-CHI
PILATES
EKIALDEKO DANTZA
YOGA

HAURRENDAKO AKTIBITATEAK

EKIALDEKO DANTZA
KARATEA NINJUTSU

URTARRILETIK AURRERA



**AURPEGI ETA GORPUTZ
TRATAMENDUAK
PRODUKTU NATURELEKIN**